



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Ogasun eta Finantza Departamentua



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESPERIENTZIA  
GENEROA AINTZAT HARTZEN DUTEN  
AURREKONTUETAN  
2015eko aurrekontuak generoaren ikuspegitik duen  
eraginaren azterketa**



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESPERIENTZIA GENEROA AINTZAT HARTZEN DUTEN AURREKONTUETAN

# AURKIBIDEA

- 1. Aurrekontu prozesuaren eraldaketa GFAn: generoa aintzat hartzen duten aurrekontuek**
  - 1.1. Araudia
  - 1.2. Prozesuaren faseak
  
- 2. 2015eko Aurrekontuak generoaren ikuspegitik duen eraginaren azterketa. Txosten exekutiboa**
  - 2.1. Sarrera
  - 2.2. Gipuzkoako genero-adierazleen benchmarking-azterketa, Europar Batasuna erreferentziatzat hartuta
  - 2.3. Funtzio publikoko datuak
  - 2.4. Aztertutako programen pisua aurrekontuan
  - 2.5. Aztertutako programen analisia eragina duten pertsonen kolektiboen arabera
  - 2.6. Aztertutako programen eragina oinarrizko gaitasunen gainean



## AURREKONTU PROZESUAREN ERALDAKETA GFAn: GENEROA AINTZAT HARTZEN DUTEN AURREKONTUAK

### 1.1 ARAUDIA

- 4/2005 legeak (6. artikulua) eta 6/2005 foru arauak (70. artikulua): arau bat osatu aurretik nahitaezkoa izango da generoaren ikuspegitik izango duen eragina aurretiazko ebaluazioa egitea.
- 2009ko urriaren 28ko Batzar Nagusietako erabakia: hiru hilabeteko epean bitartekoak jarri beharko dira generoaren ikuspegitik ebaluazio txostenak egiteko.



## AURREKONTU PROZESUAREN ERALDAKETA GFAn: GENEROA AINTZAT HARTZEN DUTEN AURREKONTUAK

### 1.2 AURREKONTU PROZESUAREN ERALDAKETAREN FASEAK (1)

- **Aurrekariak:** 2008-2011 Emakume eta Gizonen arteko berdintasun plana: Berdintasuneko zuzendaritzatik zereginak koordinatu eta prozesuak bateratu; informazioa eta trebakuntza.
- **Generoa aintzat hartzen duten aurrekontuek osatzeko aurrez egin beharreko lanak:** esperientziak ezagutu; Ogasun eta Finantza departamentuaren lidergopean egindako lana; departamentu bakoitzean maila teknikoko arduradunak bilatzea; formazioa; sexuaren arabera sailkatutako datuen bilketa; lehentasun handiko aurrekontu programak identifikatu.



## AURREKONTU PROZESUAREN ERALDAKETA GFAn: GENEROA AINTZAT HARTZEN DUTEN AURREKONTUAK

### 1.2 AURREKONTU PROZESUAREN ERALDAKETAREN FASEAK (2)

#### 2011ko aurrekontua

- **2010eko uztailaren 29an Diputatu Kontseiluak** erabaki zuen generoaren ikuspegitik aurrekontuaren azterketa prozesua abian jartzea. Aurrekontu jarraibideetan genero ikuspegia txertatzea.
- Generoaren ikuspegitik aurrekontuaren eragina ebaluatzeko **lan talde bat martxan jarri zen.**
- Departamentu bakoitzean azterketa, programen **sailkapena “egokitasunari” dagokionez** eta beste departamentuekin alderatu (inbertsiogileak, horizontalak eta diru laguntzak dauzkatena).



## AURREKONTU PROZESUAREN ERALDAKETA GFAn: GENEROA AINTZAT HARTZEN DUTEN AURREKONTUAK

### 1.2 AURREKONTU PROZESUAREN ERALDAKETAREN FASEAK (3)

#### 2012ko aurrekontua

- **Sailkapena berrikusi eta programak sailkatu garrantziaren arabera.** “G+ proiektua, generoaren ikuspegitik aurrekontua osatzeko metodologia”-n jasotzen diren irizpideak jarraitu dira: indar eraldatzailea, ahalmen eragilea, garrantzi funtzionala eta langileen kudeaketa (%21 interes handikoak, baina aurrekontuaren %52, %26 garrantzi ertainekoak eta %53 txikikoak).
- **UPV/EHUarekin hitzarmena** . Departamentu bakoitzean metodologia zehaztu, helburuak, edukiak eta adierazleak partekatuz eta Berdintasun Planarekin koherentzia bilatuz. Metodologia eta eragina txostenaren egitura diseinatzeko departamentu bakoitzean formazio.
- **Interes handikoak bezala sailkatutako programetan generoaren eraginaren azterketa egin** (17 programa, aurrekontuaren %52,4).



**AURREKONTU PROZESUAREN ERALDAKETA GFAn: GENEROA AINTZAT HARTZEN DUTEN AURREKONTUAK**

## **1.2 AURREKONTU PROZESUAREN ERALDAKETAREN FASEAK (4)**

### **2013ko aurrekontua**

Interes ertaineko zenbait programen azterketa gehitzen da (30 programa, aurrekontu osoaren %66ko pisuarekin).

### **2014ko aurrekontua**

Interes ertaineko falta ziren programen azterketa gehitzen da (33 programa eta aurrekontuaren %71) eta interes txikiko programetan generoaren fitxa betetzen da. Txosten exekutiboa



## 2.1 SARRERA

Aurrekontuak generoaren ikuspegitik lantzea aurrekontu prozesu osoaren azterketa da.

**Helburua:** politika publikoek emakumeen bizi-kalitatean duten eragina ezagutzea, gizonengan duten eraginarekin alderatuta.

**Garrantzia:** aukera ematen du neurtzeko gastu eta sarreraren politikek nolako eragina duten pertsonen ongizatean. Balio estrategiko handia Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat: politiken arteko koordinazio indartu, generoaren inguruko gogoeta arlo guztietan ezarri, berdintasun planarekin lotura bultzatu...

**Metodologia:** programa ezberdinek nola eragiten duten emakume eta gizonen bizi kalitatea, pertsonarentzat oinarrizkoak diren **gaitasunak** identifikatuz. Hortaz, **giza garapen iraunkorraren** kontzeptuarekin bat egiten du neurri handi batean.





## 2.2 GIZPUZKOAKO EGOERA EUROPAREKIN ALDERATUTA (1)

- **Populazioa:** adinekoen pisua EB27n baino handiagoa, eta nabarmenagoa 65 urtetik gorako emakumeen kasuan (Gipuzkoan %22,8 eta EB27n %19,8).
- **Denboraren erabilera:** etxeko eta zaintza lanetan emakumezkoek gizonezkoek baino denbora gehiago jarduten dute (Gipuzkoan +1 ordu 54 minutu), eta, aldiz, aisialdiari gizonezkoek emakumezkoek baino denbora gehiago eskaintzen diote. Halere, Gipuzkoan diferentzia hori nabarmen txikitu da azken 5 urteotan, eta EBren batez bestekoaren azpitik kokatu da.
- **Enplegua:** emakumeek okupazio tasa txikiagoa, nahiz eta azken urteetan igo. Emakume eta gizonen arteko okupazio tasen arraila Europako batez bestekoa baino txikiagoa da (55 urtetik gorakoentzat ere bai). Enplegua gehienbat zerbitzu sektorean; eta lanaldi partziala gizonezkoek baino proportzio handiagoan, baina EBeko zenbatekoak baino askoz txikiagoak.



## 2.2 GIZPUZKOAKO EGOERA EUROPAREKIN ALDERATUTA (2)

- **Prestakuntza:** batez beste emakumeek hezkuntza maila altuagoa. Eta adin tarte batzuetan unibertsitate mailako ikasketak EBean baino proportzio handiagoak. Ingeniaritza eta ikasketa tekniko-industrialei dagokionez, emakumeen presentzia txikiagoa.
- **Errenten banaketa:** desoreka nabarmena. Emakumezkoek errenta txikiagoak jasotzen dituzte eta egindako lanagatik diru-sarrera gutxiago lortzen dute. Pobreziataza Europan baino txikiagoa da, baina gehiago eragiten die emakumeei. Halere, sexuen arteko arraila handiago da Gipuzkoan.
- **Erabakiak hartzeko alorra:** desoreka enpresa pribatuetan eta aurrerapenak sektore publikoan.
- **Emakumeen aurkako indarkeria:** datuak geroz eta kezkarriagoak dira.



## 2.3 GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO LANGILERIA (2013)

- Datu osoetan eta kopuruan nahiko parekatuak.
- **Burutzen banaketa:** bilakaera positiboa, baina gizonezkoak gehiago A1 eta A2 taldekoetan; emakumezkoak nagusi C1 taldeko burutzetan.
- **Sailkapen taldea:** A1ean gizonak nagusi; A2 eta C1ean emakumezkoak.
- **Kontratu mota:** karrerazko funtzionarioetan gizonak nagusi eta interinoetan emakumezkoak.
- **Adinaren arabera:** parekotasuna. Gizon gehiago 60-64 urteko tartean, beraz etorkizunean emakumezkoak pisua irabaziko dute.
- **Familia eta lanaren bateragarritasuna:** emakumezkoak nagusi.
- **Prestakuntza:** emakumezkoak parte-hartze handiagoa, eta gehienbat garapen pertsonala lantzen duten ikastaroetan.



**2015eko AURREKONTUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK DUEN ERAGINAREN AZTERKETA. TXOSTEN EXEKUTIBOA**

## **2.4 AZTERTUTAKO PROGRAMAK (1)**

<b>Aztertutako programa kopurua</b>	<b>31</b>
<b>Aztertutako zenbatekoa (eurotan)</b>	<b>500.727.268</b>
<b>GFaren aurrekontu propioa</b>	<b>705.301.336</b>
<b>Aztertutako zenbatekoa (%)</b>	<b>71,0</b>



2015eko AURREKONTUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK DUEN ERAGINAREN AZTERKETA. TXOSTEN EXEKUTIBOA

## 2.4 AZTERTUTAKO PROGRAMAK (2)

DEPARTAMENTUA	PROGRAMA KOPURUA	GENERO GARRANTZIA	AURREKONTUA - 2015		
			ZENBATEKOA (eurotan)	PISUA DEPARTAM. (%)	PISUA AURREKONTU OSOAN* (%)
DIPUTATU NAGUSIA	8	6 HANDI / 2 ERTAIN	21.664.652	99,0	3,1
KULTURA, GAZTERIA ETA KIROLA	3	2 HANDI / 1 ERTAIN	26.113.253	55,8	3,7
GIZARTE POLITIKA	7	7 HANDI	333.348.182	98,8	47,3
FORU ADMZIOA ETA FUNTZIO PUBLIKOA	1	ERTAINA	5.239.810	14,0	0,7
OGASUNA ETA FINANTZAK*	4	2 HANDI / 2 ERTAIN	36.508.883	30,2	5,2
BERRIKUNTZA, LANDA GARAPENA ETA TURISMOA	6	3 HANDI / 3 ERTAIN	35.624.673	62,2	5,1
MUGIKORTASUNA ETA BIDE AZPIEGITURAK	2	2 ERTAIN	42.227.815	37,8	6,0
GUZTIRA	31	20 HANDI / 11 ERTAIN	500.727.268		71,0

\* Kudeaketa propioko aurrekontuaren zenbatekoarekin alderatuta.



## 2.4. PROGRAMA BAKOITZEKO BETE BEHARREKO FITXA

1. Programa eta zenbatekoa
2. Programaren helburuak, hartzaileak eta jarduerak
3. Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera
4. Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa
5. Gaitasunen inguruko hausnarketa
6. Egin al da analisi edo ikerketa berezirik? Egin bada azaldu
7. Aurreikusten dira aldaketak hobekuntzak sartzeko genero ikuspuntutik?



## 2.5 AZTERTUTAKO PROGRAMEN ANALISIA ERAGINA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBOEN ARABERA (1)

**HELBURUA:** GFAk aurrera eramaten dituen programak nola eragiten duten emakume eta gizonen bizi kalitatean; Horretarako, pertsonen kolektibo nagusiak bost taldetan bereizten dira:

- Adinekoak
- Helduak
- Haur eta gazteak
- Behar bereziak dauzkatenak (desgaituak zein genero indarkeria, besteak beste)
- Populazio osoa

Kolektibo bakoitzari zuzentzen zaion aurrekontuaren zenbatekoa aztertuta jakin dezakegu politika publikoek nola eragiten duten onuradunen talde nagusien artean.



2015eko AURREKONTUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK DUEN ERAGINAREN AZTERKETA. TXOSTEN EXEKUTIBOA

## 2.5 AZTERTUTAKO PROGRAMEN ANALISIA ERAGINA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBOEN ARABERA (2)

Horretarako programa bakoitzeko arduradunak fitxa bat betetzen du. Bertan txertatu behar dira programaren onuradunen adierazle egokienak, betiere emakumezkoen eta gizonezkoen arteko datuak berezitura. Esaterako: artatutako pertsona kopurua, populazioarekiko estaldura tasa, bilakaera...

Adibidea

Adineko pertsonen arreta ematea - Gizarte Politikako Departamentua  
Zerbitzu nagusienetan artatutako populazioa 2013an zehar

	<b>Guztira</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>
Adineko mendekoak guztira	19.864	5.970	13.894
Egoitzak	5.460	31,00%	69,00%
Etxeko arreta (mendekoak)	3.554	26,10%	73,90%
Eguneko zentroak	2.211	28,20%	71,80%
Unitate sozio-sanitarioak	274	52,60%	47,40%
Aldi baterako egonaldiak	617	31,90%	68,10%
Sendian (aldi baterako egonaldirik gabe)	1.462	32,70%	67,30%
<b>Artatutakoak guztira</b>	<b>13.578</b>	<b>29,90%</b>	<b>70,10%</b>
<b>ESTALDURA TASA</b>	<b>68,35%</b>	<b>68,00%</b>	<b>68,51%</b>





2015eko AURREKONTUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK DUEN ERAGINAREN AZTERKETA. TXOSTEN EXEKUTIBOA

## 2.5 AZTERTUTAKO PROGRAMEN ANALISIA ERAGINA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBOEN ARABERA (3)

Adibidea

Aldizkako prestazio ekonomikoak - Gizarte Politikako Departamentua

Artatutako populazioa 2014an zehar eta estaldura tasa (Gipuzkoako adineko biztanleria osoaren gaineko %)

	<b>Guztira</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>
Familia esparruko zaintzarako diru prestazioak	9.127	37,84%	62,16%
Pentsio ez kontributiboak	2.921	40,36%	59,64%
Artapen pertsonalerako diru prestazioak	2.198	26,66%	73,34%
Zerbitzuari lotutako prestazioa	141	29,79%	70,21%
Diru sarrerek bermatzeko laguntza	1.427	71,48%	28,52%
Bestelakoak	509	26,52%	73,48%
<b>GUZTIRA</b>	<b>16.323</b>	<b>38,78%</b>	<b>61,22%</b>
<b>ESTALDURA TASA</b>	<b>11,45%</b>	<b>10,52%</b>	<b>12,14%</b>



2015eko AURREKONTUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK DUEN ERAGINAREN AZTERKETA. TXOSTEN EXEKUTIBOA

## 2.5 AZTERTUTAKO PROGRAMEN ANALISIA ERAGINA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBOEN ARABERA (4)

Garraioaren antolamendua eta sustapena – Mugikortasuna eta Bide Azpiegituretako Departamentua

Mugi -Lurraldebus txartelaren jabeak sexu eta adinaren arabera

ADINA	TXARTELAZ GUZTIRA	GIZONAK GUZTIRA	% GIZONAK GUZTIRA	EMAKUM. GUZTIRA	% EMAKUM. GUZTIRA
0-10	12.427	6.303	50,7	6.124	49,3
11-30	64.031	28.188	44,0	35.843	56,0
31-60	80.858	29.558	36,5	51.300	63,4
61tik gora	45.658	17.565	38,4	28.093	61,5
Adinik ez	19.528	7.628	39,0	11.900	60,9
<b>Guztira</b>	<b>222.502</b>	<b>89.242</b>	<b>40,1</b>	<b>133.260</b>	<b>59,9</b>



2015eko AURREKONTUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK DUEN ERAGINAREN AZTERKETA. TXOSTEN EXEKUTIBOA

## 2.5 AZTERTUTAKO PROGRAMEN ANALISIA ERAGINA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBOEN ARABERA (5)

Mugikortasuna – Mugikortasuna eta Bide Azpiegituretako Departamentua  
Erabiltzaileen bidai kopuruaren bilakaera

URTEA	GUZTIRA	GIZONAK GUZTIRA	GIZONAK GUZTIRA %	EMAKUMEA K GUZTIRA	EMAKUMEA GUZTIRA %
2009	11.912.010	3.544.070	29,8	8.367.940	70,2
2010	13.198.686	4.090.883	31	9.107.803	69
2011	14.347.250	4.569.796	31,9	9.777.454	68,1
2012	15.580.852	5.113.064	32,8	10.467.788	67,2
2013	20.475.950	6.876.451	33,6	13.599.499	66,4



2015eko AURREKONTUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK DUEN ERAGINAREN AZTERKETA. TXOSTEN EXEKUTIBOA

## 2.5 AZTERTUTAKO PROGRAMEN ANALISIA ERAGINA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBOEN ARABERA (6)

Zerga eta Finantza Politika – Ogasun eta Finantza Departamentua

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

	Batez besteko errenta					Bariazioa			
	2008	2009	2010	2011	2012	09/08	10/09	11/10	12/11
<b>Emakumeak</b>	14.747	15.468	15.161	15.604	14.987	4,9	-2,0	2,9	-4,0
<b>Gizonak</b>	25.103	25.865	26.058	26.193	25.080	3,0	0,7	0,5	-4,2
<b>Arraila</b>	41,3	40,2	41,8	40,4	40,2	-1,1p.p.	+1,6p.p.	-1,4 p.p.	-1,4 p.p.

Zenbatekoa eurotan



2015eko AURREKONTUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK DUEN ERAGINAREN AZTERKETA. TXOSTEN EXEKUTIBOA

## 2.5 AZTERTUTAKO PROGRAMEN ANALISIA ERAGINA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBOEN ARABERA (7)

Zerga eta Finantza Politika – Ogasun eta Finantza Departamentua

2012ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Datu nagusiak zergadunaren sexuaren arabera


	GIZONAK	EMAKUMEAK	% GIZONAK	%EMAKUMEAK
<b>AURKEZTUTAKO AITORPENAK GUZTIRA (kopurua)</b>	214.705	171.065	55,7	44,3
<b>OINARRI LIKIDAGARRI OSOA</b>	<b>5.361.816</b>	<b>3.175.943</b>	<b>62,8</b>	<b>37,2</b>
<b>KENKARI OROKORRA</b>	<b>286.340</b>	<b>225.970</b>	<b>55,9</b>	<b>44,1</b>
<b>KENKARI FAMILIAR ETA PERTSONALAK</b>	<b>118.886</b>	<b>84.304</b>	<b>58,5</b>	<b>41,5</b>
Ondorengoengatik	64.277	42.180	60,4	39,6
Seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatik	1.228	96	92,8	7,2
Aurrekoengatik	363	239	60,3	39,7
Ez gaitasuna	17.833	13.427	57,0	43,0
Mendekotasuna	12.906	11.691	52,5	47,5
65 urtetik gorako adinagatik	22.279	16.672	57,2	42,8
<b>KENKARIAK OHIKO ETXEBIZITZAGATIK</b>	<b>84.175</b>	<b>58.341</b>	<b>59,1</b>	<b>40,9</b>
Etxebizitza errentan hartzea	14.337	11.497	55,5	44,5
Etxebizitza erosteagatik	68.148	45.679	59,9	40,1
Etxebizitza kontuan inbertitzea	1.690	1.164	59,2	40,8
<b>BESTELAKO KENKARIAK</b>	<b>7.995</b>	<b>6.289</b>	<b>56,0</b>	<b>44,0</b>
<b>KENKARIAK, GUZTIRA</b>	<b>497.395</b>	<b>374.904</b>	<b>57,0</b>	<b>43,0</b>



2015eko AURREKONTUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK DUEN ERAGINAREN AZTERKETA. TXOSTEN EXEKUTIBOA

## 2.5 AZTERTUTAKO PROGRAMEN ANALISIA ERAGINA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBOEN ARABERA (8)

Kolektibo bakoitzari zuzendutako aurrekontuaren %





## 2.5 AZTERTUTAKO PROGRAMEN ANALISIA ERAGINA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBOEN ARABERA (9)

### ADINDINEKOEI ZUZUENDUTAKO PROGRAMAK (204 milioi euro - %28,9)

- Adinekoen laguntza (129,7 milioi euro): helburua da pertsona horiek beren ohiko ingurunean (etxea, familia...) baldintza egokietan zaintzeko beharrezko laguntzak ematea, eta ingurune hori aldatu behar denean zaintza hori bermatzea.
- Aldizkako prestazio ekonomikoak (74,3 milioi euro): helburua da diru-sarrerak bermatzea halakorik ez dutenei, eta, era berean, laguntza finantzarioa ematea mendekotasunean dauden adineko pertsoneri, beren ohiko ingurunean mantentzeko (etxea, familia...).
- Onuradun nagusiak adinekoak izan arren, beste talde askotan ere eragiten da, besteak beste, adineko horien etxekoengan eta zerbitzu publiko hauetan lan egiten dutenengan.



2015eko AURREKONTUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK DUEN ERAGINAREN AZTERKETA. TXOSTEN EXEKUTIBOA

## 2.5 AZTERTUTAKO PROGRAMEN ANALISIA ERAGINA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBOEN ARABERA (10)

**BEHAR BEREZIAK DITUZTENEI ZUZUENDUTAKO PROGRAMAK (84,8 milioi euro - %12,0)**

- Desgaituen laguntza (52,4 milioi euro): helburu bezala du pertsona horiek beren ohiko ingurunean (etxea, familia...) baldintza egokietan zaintzeko beharrezko laguntzak ematea, eta ingurune hori aldatu behar denean zaintza hori bermatzea.
- Gizarteratzeko, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako eta Gizarte Larrialdietako programa (24,0 milioi euro): helburuetako bat da gizarte-bazterketa edo marjinazioan bizi diren pertsonen beharrezko laguntzak ematea, berriro gizarteratzeko.
- Inbertsio eta gizarte lankidetzaren plana (8,4 milioi euro): ezintasuna duten pertsonen laguntza teknikoetan inbertitzeko laguntzak ematen dira.





2015eko AURREKONTUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK DUEN ERAGINAREN AZTERKETA. TXOSTEN EXEKUTIBOA

## 2.5 AZTERTUTAKO PROGRAMEN ANALISIA ERAGINA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBOEN ARABERA (11)

**HAUR ETA NERABEEI ZUZUENDUTAKO PROGRAMAK (72,5 milioi euro - %10,3)**

Nahiz eta kolektibo berari zuzenduak egon, programa horiek jarduera oso desberdinak eramaten dituzte aurrera, eta noski, behar oso desberdinak asetzen dituzte

- Kultura, Gazteria eta Kirola Departamentuko programak: aisialdia, kirola eta parte-hartzea.
- Ogasun eta Finantza Departamentuko programak: zerga heziketa.
- Gizarte Politikako Departamentuko programak: Haur eta nerabeen babesaren bidez lortu nahi da gizarte ahultasuna edo babesik ez duten adingabeak baldintza egokietan zaintzea



2015eko AURREKONTUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK DUEN ERAGINAREN AZTERKETA. TXOSTEN EXEKUTIBOA

## 2.5 AZTERTUTAKO PROGRAMEN ANALISIA ERAGINA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBOEN ARABERA (12)

### POPULAZIO OSOARI ZUZUENDUTAKO PROGRAMAK (88,5 milioi euro - %12,5)

14 programen bidez egiten da. Esanguratsuenak:

- Garraioaren antolamendu eta sustapen programa da (36,2 milioi euro).
- Landa garapena eta nekazal egiturak (12,1 milioi euro).
- Mugikortasunaren programa (6,0 milioi euro).
- Berdintasun programa. Nahiz eta zenbatekoa handia ez izan, zeharkako zeregin garrantzitsua du: emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatu, bai Aldundiaren barnean baita gizartean ere.
- Ogasun eta Finantza departamentuko Aurrekontuak eta finantzak programa; bere bitartez politika publikoen ildo nagusiak definitzerakoan generoaren ikuspegiari bultzada ematen zaio, Foru Aldundiko aurrekontuak prestatzeko garaian.



## 2.5 AZTERTUTAKO PROGRAMEN ANALISIA ERAGINA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBOEN ARABERA (13)

### HELDUEI ZUZUENDUTAKO PROGRAMAK (51,0 milioi euro - %7,2)

- Hiru departamentuetan gauzatzen dira programak: Ogasuna eta finantza; Foru Administrazioa eta funtzio publikoa; eta Berrikuntza, landa garapena eta turismoa. Programa horien bitartez, helduen kolektiboaren zenbait gaitasunetan eragiten da:
- Diru-sarrerak eskuratzeko aukera: bai zerga-sistemaren bitartez, eta baita ikaskuntza, ekintzailetasuna eta berrikuntza bultzatuz ere.
- Ordaindutako lana, baldintza egokietan izateko aukera: hezkuntza eta jarduera berritzaileak bultzatuz.



## 2.6 AZTERTUTAKO PROGRAMEN ERAGINA OINARRIZKO GAITASUNEN GAINEAN (1)

Oinarrizko gaitasunen araberako azterketarekin ikusi nahi da programa ezberdinek nola eragiten duten emakume eta gizonen bizi kalitatean. Oinarrizko gaitasunak identifikatzeko Amartya Sen-ek proposatutako ikuspegia erabili da, eta Martha Nussbaum-ek garaturiko funtsezko gaitasunen zerrenda.

- Zaintza egokirako aukera
- Etxeko esparru egoki eta segururako aukera
- Diru sarrerak eskuratzeko aukera
- Aisialdirako eta kirola egiteko aukera
- Mugikortasun eta lurralde antolaketa egokietarako aukera
- Gizarte eta politika mailan parte-hartzeko aukera
- Ordaindutako lanerako aukera, baldintza egokietan
- Hezkuntza eta ezagutzarako aukera
- Osasunerako aukera
- Indarkeriarik gabeko bizitza librerako aukera



2015eko AURREKONTUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK DUEN ERAGINAREN AZTERKETA. TXOSTEN EXEKUTIBOA

## 2.6 AZTERTUTAKO PROGRAMEN ERAGINA OINARRIZKO GAITASUNEN GAINEAN (2)

Gaitasun bakoitzak duen garrantzia aztertutako aurrekontuaren barruan - 2015 (%)

